



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO MAIATZAREN 23AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Maiatzaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Apirilaren 25eko ohiko batzarreko eta maiatzaren 2 eta 17ko ez ohiko batzarren aktak onartu dituzte bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dira..

2.- Alkate ebazpenak

-2023/40 alkate ebazpena: Onartu Montserrat Diez Abaurreak egindako epaitz eskaera, 2023. Urterako.

- 2023/41 alkate ebazpena: Onartzea Basaburuko herrien arteko mus txapelketa finantziazteko dirulaguntzeko eskaera, eta txapelketaren gastua osotasunean udalak hartzea bere gain, hots 360 euroko laguntza onartzea

-2023/42 alkate ebazpena: Martxoaren 29an Marcos Erro Martínezek egindako txosten juridikoa onartzea. Txosten hori Telefonikak Itsasotik Ihabenera doan errepidean 6 zutoin eta 3 txarrantxa ordeztzeko obra baimenaren tasaren likidazioaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoari buruzkoa da.

-2023/43 alkate ebazpena: Obra baimena ematea Telefonica de España SAUri Olako San Tiburcio 11. Eta 12. kalearen inguruan 2 zutoi eta riostra bat aldatzeko eta gainera 2 riostra berri jartzeko, obraren aurrekontua 2.418,37 eurokoa da.

- 2023/44 alkate ebazpena: Obra baimena ematea Telefonica de España SAU ri Udaben (NA-411 0.5 k-an) riostra bat aldatzeko , 2.027 euroko aurrekontuarekin.

- 2023/45 alkate ebazpena: Obra baimena ematea Telefonica de España SAU ri 2 riostra aldatu eta berri bat jartzeko lgoan, 295 euroko aurrekontuarekin.

- 2023/46 alkate ebazpena Obra baimena ematea Telefonica de España SAUri NA 411 0.4 KM-an riostra bat aldatzeko, obra honen aurrekontua 197 euro dira.

- 2023/47 alkate ebazpena Obra baimena ematea Telefonica de España SAU ri Ihabengo Natividad 1 kalean zutoi bat eta 3 riostra aldatzeko.

- 2023/48 alkate ebazpena: Obra baimena ematea Telefonica de España SAU.ri Jaunsarasko Asuncion 4 zenbakian eta NA411 errepideko 6k-an 5 riostra jartzeko , aurrekontua 1.400,11 eurokoa.

- 2023/49 alkate ebazpena. Obra baimena ematea Telefonica de España SAU ri Gartzarongo Asuncion kaleko 11. eta NA -411 errepideko 10.5 K-an 4 zutoia eta 5 riostra aldatu eta 2 riostra berri jartzeko 4.678,97 euroko aurrekontuarekin.

- 2023/50 alkate ebazpena: Baimena ematea Aralar Musika Eskolari, ekainaren 14an egin behar duten kontzertua egiteko Oihanzabal eskolako patioa erabiltzeko edo denbora txarra egiten badu Apeztegi berriko ganbara, arratsaldeko 15:00etatik aurrera

- 2023/51 alkate ebazpena: Onartzea Ametza Kultur Elkarteari, Esan Erran irratia 25. urteurrena ospatzeko 300 euroko laguntza ekonomikoa.

-2023/52 alkate ebazpena:Obra baimena ematea Telefonica de España SAUri Olako San Tiburcio 12 helbidean zutoi bat eta riostra bat aldatzeko eta 5 riostra berri jartzeko obra honen aurrekontua 1.839,45 eurokoa da.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2023ko plantilla organikoaren hasierako onespena.

Urtero legez plantillari onespena ematea dagokiola adierazten du alkateak Irakurtzen ditu plantillaren ezaugarriak.

Haur eskolako langileen kasuan, beraien ordainsariak egokitu dira urte hasiera batzarrean onartu zen erabakiaren ildora eta hortaz zuzendariaren lanpostu osagarria orain % 23.38koa da, hezitzaileena %18.52koa eta garbitzailearena d mailari dagokion soldataz gain %8.35eko gehigarria.

Bildutakoek aho batez onartzen dute hortaz 2023ko Basaburuko udaleko plantilla organikoa eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioaren 325. Artikulua jarraituz hasierako onespeneren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen dute bildutakoek, argitaratzen denetik 15 eguneko epean jende aurrean egon dadin espedientea.

4.- Ttikiena haur eskola , 2023-2024 ikasturteko egutegia onartu.

Hezkuntza departamentuak hala eskatzen duenez, ikasturterako 0-3 eskolaren egutegia onartu behar duela udal batzarrak adierazten du alkateak.

2023-2024 ikasturterako 206 lan egun egonen dira eta horietatik 204. Egun haurrekin eta beste biak, langilean bakarrik egonen dira antolaketa lanak egiten, ikastetxearen ordutegia 7:40etatik 16etara izanen da.

Ikasturte abuztuaren 24an hasiko da eta bukatu,2024ko uztailaren 4an.

Ikasle kopurua kontutan hartuta bi unitate izango dira ere ikasturte honetan biak jardunaldi osokoak.

Bildutakoek egutegia aztertu ondoren aho batez onartzea adosten dute eta erabaki hau Hezkuntza Departamentura bidaltzea.

5.- Igoako UA2 unitatearen urbanizazio proiektuaren aldaketaren behin betiko onespena eta udalaren lursailaren salerosketaren hitzarmena onartu

Urbanizazio proiektua aldatu zuten sustatzaileek argi indar linearen lerrokadura aldatzen zelako, horrek urbanizazio proiektuaren tramitazioa berriro egitea eskatzen zuen 2017/1 Foru Derketuaren 134 artikulua jarraituz.

Hasierako onespenerako erabakia batzarrak otsailaren 27an hartu zuen eta Nafarroko Aldizkari Ofizialak argitaratu martxoaren 16an, jendeaurreko epean egon ondoren, behin betiko onespena ematea dagokioo urbanizaio proiektuaren aldaketari.

Bildutakoek hortaz aho batez ondoen zehazten den erabakia hartzen dute:

Behin betikoz onartzea Igoako UA 2 unitatearen urbanizazio proiektuaren aldaketa, eta 2017/1 Legegintzako Foru Dekretuaren 134. artikulua jarraituz , erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

Erabaki hau UA 2 unitateko sustatzaileari jakinarazi.

Bestetik unitate horretan udala eta sustatzailearen izenean badago lursail bat eta sustatzailearen izenean egoteko bere osotasunean salerosketa hitzarmen bat sinatu zuten bi aldeek, hitzarmen hau batzarrak onartu gabe zuen eta hortaz Nafarroako toki entitateen ondasunak arautzen dituen 1990/280 Foru Dekretuaren 126. artikulua araberan, bildutakoek hitzarmena hau aho batez onartzen dute era erabakia sustatzaileari jakinaraztea agintzen dute.

6.-Mozioa.

Ez dago moziorik.

7- Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa:

Maiatzaren 27an BTT martxa burutuko da Basaburuan zehar eta 300 parte hartzailek eman dute izena, kopuru horretan jarri da muga.

Garapen batzordea. Ricardo Arangoa ematen du informazioa:

Elikadura mahaiaren bilera egin zen.

Artilearen kudeaketaren inguruko ikastaro bat burutuko du Mendialdeko Mankomunitateak.

Bestetik ere gaztaina ondoen inguruan 3 hitzaldi antolatu dira, bat haien egoera orokorraren inguruan aurreko astean egin zen jada eta besteak udazkenean egingo direnak, kimaketen eta txertoen ingurukoak izango dira.

Uztailaren 25ean buruko da azoka ibiltaria Jauntsaratsen.

8- Informazio orokorra.

Ez dago informaziorik.

9. Errege-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:40 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.